

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat aurrera eramateak kostu asko suposatzen ditu. Askotan ideia onetatik abiatutako enpresek porrot egiten dute ordaindu behar dituzten kostuak lortzen dituzten diru-sarreraren gainetik daudelako; hala ere, zenbaitetan negozioa-eredua aldatzearekin nahikoa da arazo hori konpontzeko. Horregatik, oso garrantzitsua da enpresarekin ekin aurretik produktu edo zerbitzu horrek beharko duen diru kopurua kalkulatzeko saiatzea, estimazio batetik abiatuta enpresa aurrera eramanean daitekeen edo ez jakiteko.

Hainbat kostu mota desberdin daude: beti berdin mantentzen direnak (kostu finkoak), ekoiztutako produktu kopuruaren arabera aldatzen direnak (kostu aldakorak) eta zenbat eta produkzio handiagoarekin murrizten direnak (eskala kostuak).

Gure enpresa ideari dagokionez, kostuak hauek dira: plastikozko kaxa sortzen duen enpresaren ordainketa, alarma osatu eta kaxan ezartzen duen sozietatearen ordainketa, marketinero enpresari ordainketa, bulegoaren lokalaren alokairua, banaketarako furgoneta eta furgoneta gidatzeko pertsonaren soldata. Kostu hauek guztiak ordaindu ahal izateko moduan ikusten dugu gure enpresa; izan ere, nahiz eta hasieran zailagoa izango den salmenta gutxi izango ditugulako, balio proposamenari buruz azalpenak ematerakoan esan bezala, gure ustez gure produktuek kalitatea handia eskaintzen dute hain beharrezkoa den gai batean eta gure bezeroek ez dute merkea izateagatik erosiko, zerbitzu ona eskaintzen duelako baizik.

Denborak aurrera egin ahala kostuei aurre egiteko geroz eta gaitasun handiagoa izatea espero dugu, eta horrela bada gure negozioa handitzen joatea. Gainera, horrela zenbait kostu merkeago izango lirateke guretzat, kostu aldakorak eta eskala kostuak hain zuzen ere. Hauek oso garrantzitsuak dira gure pastillero adimentsua egin ahal izateko; izan ere, produktua osatzeko beharrezko lehengaiak ematen dizkiguten enpresek suposatzen dituzten kostuak dira.

